

7. GAIA: “Jaraunlearen eskubidearen eskualdaketa eta defentsa”

I.-ARAUDIA

Kode zibila

Hipoteka Legea

Prozedura Zibilari buruzko Legea

II.-JARAUNSPENAREN ESKUALDAKETA

Jaraunleak jaraunspeneko ondasunak banan-banan eskualda ditzake, jaraunspenean duen kuota besterendu dezake edo jaraunspenez jasotakoa ondare gisa ere xedatu dezake, bai kostubidez bai doako tituluz, betiere *inter vivos*. Kode Zibilak jaraunspena bera saltzeko aukera bakarrik aurreikusten du (KZeko 1067 eta 1531., 1.533 eta 1.534 art.ak), ohikoena hori delako, baina besterentzeko bestelako egintzak ere onargarriak dira (KZeko 1000.1. art.).

Ondasun jakinak banan-banan besterentzeak ez du arazo berezirik sortzen, kontratu arrunta baten aurrean egongo baikara. Beraz, beste biak aipatuko dira: jaraunspena ondare gisa besterentzea eta jaraunspenaren gaineko kuota eskualdatzea.

(1) **Jaraunspena ondare gisa saltzen denean**, horrelako kontratuen eraginak zehazteko, honako arau berezi hauek ezartzen dira:

(a) **Saneatzeko obligazioa**: *el que venda una herencia sin enumerar las cosas de que se compone, sólo estará obligado a responder de su calidad de heredero* (KZeko 1531. art.); beraz, jaraunspena osatzen duten gauza materialen akatsen erantzulea izan beharrik ez du jaraunleak. Ildo beretik, gainera, KZeko 1.532. artikulua zera dio: *El que venda alzadamente o en globo la totalidad de ciertos derechos, rentas o productos, cumplirá con responder de la legitimidad del todo en general; pero no estará obligado al saneamiento de cada una de las partes de que se componga, salvo en el caso de evicción del todo o de la mayor parte.*

(b) **Fruituak**: *si el vendedor se hubiese aprovechado de algunos frutos o hubiese percibido alguna cosa de la herencia que vendiere, deberá abonarlos al comprador, si no se hubiese pactado lo contrario* (KZeko 1533. art.).

(c) **Gastuak:** *el comprador deberá, por su parte, satisfacer al vendedor todo lo que éste haya pagado por las deudas y cargas de la herencia y por los créditos que tenga contra la misma, salvo pacto en contrario* (kzeko 1534. art.); badirudi salmenta kausatzailea hil zen unean egindakotzat jo nahi duela legeak.

Jaraunspena osatzen duten ondasunek jaraunspeneko zorrak ordaintzera behartuta segituko dute, eta, beraz, jaraunspenaren eskuratzailleak zor izango ditu. Gainerakoan, obligazioari buruzko zuzenbidera meneratuko diren kontratuak dira, eta horko arauak aplikatuko dira.

Berezitasuna objektuak ezartzen badu, hori zehaztea da arazo nagusia. Hasteko, adierazi behar da ez dela jaraunspena —hau da, unibertsalitatea— oro har besterentzen, ondasun transmitigarriak bakarrik besteren baitaitezke. Jaraunse-titulua izendatuari soilik dagokio; komertziotik kanpo dago eta besterenduezina da, txit pertsonala. Xedatu ditzakezu jaraunse gisa oinordetzan jaso dituzun ondasunak, banan-banan ala denak batera, baina ezin duzu zure jaraunse kondizioa besterendu; pertsonari atxekituta dago.

Ondasun horiek eskuratzen dituen jabe berria da eta ez oinordekoa; *inter vivos* gertatzen denez, kontratu arruntaren erregimena aplikatuko zaio eta, horregatik, titulua eta modua eskatuko dira. Tituluak besterendutako ondasun guztiak bilduko ditu, eta atxikita izango du zorrak ordaintzeko obligazioa. Transmititzeko, ondasun bakoitzaren izaera kontuan izan beharko da; esate baterako, kreditu bat emateko, zorduna jakinaren gainean jarri behar da; gero, entrega edo tradizioa ere egin beharko da.

AGE 1967/5/27: “La venta de herencia requiere que se encuentre aceptada por el vendedor y que implique todo su activo y pasivo, porque es comprensiva de todos los bienes, derechos y acciones y, como toda compraventa, no es inmediatamente traslativa de dominio, sino que cada objeto que la compone exigirá una modalidad de acuerdo con su especie. Lo que no puede incluir la venta de herencia es la posesión civilísima porque se trata de un derecho personalísimo de la cualidad de heredero”.

(2) **Kuota soila ere besterendu daiteke** (kzeko 1067. art. eta HLKO 46. art.), jaraunspenaren banaketa burutu baino lehen; erosleak, hala, jaraunsearen eskubide ekonomikoak jasoko ditu eta, beraz, jaraunspen-erkidegoan hartuko du parte. Baina, jaraunseleari dagozkion alderdi pertsonalak (jaraunse-izaera bera, adibidez) ez dizkio transmitituko erosleari. Kuota besterentzen bada, gainerako erkidegokideek **atzeraeskuratze-eskubidea** dute (tanteo-erretraktoa): *si alguno de los herederos vendiere a un extraño su derecho hereditario antes de la partición, podrán todos o cualquiera de los coherederos subrogarse en lugar del comprador, reembolsándole el precio de la compra, con tal que lo verifiquen en*

término de un mes, a contar desde que esto se les haga saber (kzeko 1067. art.). Erkidegokoa ez den norbaiti besterentzen bazaio, hilabeteko epea dute gainerakoek, besterentzearen berri izan dutenetik, atzeraeskuratzeko eskubidea egikaritzeko.

III.-ACTIO PETITIO HEREDITATIS (Jaraunspena eskuratzeko akzioa)

Batetik, jaraunsleak kausatzaileari zegozkion akzioak, pertsonalak nahiz errealak, egikari ditzake, transmitigarriak direnenan. Bestalde, jaraunse izateak bi akzio zehatz daramatza berekin:

(1) **Edukitza eskuratzeko interdiktua**: jaraunspena osatzen duten ondasunen edukitza eskuratzeko (*vid.* kzeko 440 eta 442 eta JZLko 250.1.3, 266.4, 441.1 eta 447.2. art.ak).

(2) **Jaraunspena eskatzeko akzioa** (*actio petitio hereditatis*). Honi jarriko diogu arreta atal honetan.

AGE 1971-12-23 (RAJ 5401): “Quien se arrogue la cualidad de heredero de una persona, puede ejercitar, no sólo las acciones singulares que correspondían al causante en vida, como si fueran propias del difunto, sino que también puede ejercitar aquéllas que, sin corresponder a dicho causante, surgen como consecuencia del título sucesorio, las que a su vez son de dos clases: las universales, que protegen el derecho hereditario en su considerando de consideración unitaria –*actio petitio hereditatis*, interdicto de aquí adquirir-, y las particulares que el heredero tiene a su favor, en defensa de sus concretas facultades, entre cuyas acciones figuran las de proteger el derecho a la legítima –*ad suplementum, querella de inefficiosi testamenti*, reducción de donaciones inoficiosas- o el derecho de hacer cesar la comunidad hereditaria –*actio familiae erciscundae*-”.

Jaraunspena eskatzeko akzioa zera da: norbait jaraunselea dela deklaratzeko eta jaraunspeneko ondasunak itzultzeko eskatzeko tarteratzen den akzioa. Esate baterako, testamentu batean zenbait pertsona izendatzen dira jaraunse eta, behin jaraunspena banatu ondoren, beste testamentu bat agertzen da, non beste pertsona batzuk izendatzen baitira jaraunse; azken horiek, jaraunse baitira, lehenengo haien aurka akzioa egikari dezakete utzitako jaraunspena jasotzeko.

AGE 1998/7/24 (RAJ 6446): “La esencia de la llamada acción de petición de herencia (*actio petitio hereditatis*) consiste, sustancialmente, en el hecho de que, hallándose unos bienes poseídos en concepto de dueño por un tercero, el que considera pertenecerle dichos bienes, por título de herencia, reclama se declare en su favor la titularidad dominical de los mismos”.

AGE 1993/6/21 (RAJ 4690): “La de petición de herencia, la confunde la sentencia de primera instancia, con una acción reivindicatoria, cuyas dos acciones, aunque con ciertos puntos de similitud, difieren entre sí, pues la primera de ellas es una acción universal dirigida primordialmente al reconocimiento de la cualidad de heredero con respecto a un *totum* hereditario, mientras que la segunda, de naturaleza típicamente real, se dirige a obtener la restitución de bienes concretos y determinados, si bien la *actio petitio hereditatis* también sirve de vehículo para que las personas activamente legitimadas por ella puedan conseguir en beneficio de la masa común (y, tal vez, aquí radique la confusión en que incurre la sentencia del Juez) la restitución de todos o parte de los bienes que compongan el caudal relicto perteneciente al causante, cuya posesión a título sucesorio (*pro herede possesor*) o sin derecho alguno (*possidens pro possessore*) retenga en su poder el demandado”.

Kodeak zenbait artikulutan aipatzen badu ere (kzeko 192., 1016. eta 1021. art.ak), arauketa berezirik ez dio ematen. Jabe izateagatik gauzak errebindikatzeko akzioa ez bezala, jaraunspena eskatzeko akzioa ez dago kausatzailearen ondarean. Akzioak jaraunse-titulua du oinarritzat, eta sortuko da, beraz, oinordetza ireki eta jaraunspena onartzen bada. Jaraunseak lortzen du akzioa tarteratzeko eskubidea jaraunspena onartzen duenean.

Ikuspegi subjektibotik, jaraunselea, oinordeko unibertsala da eta, ondorioz, jaraunspenaren titularra. Eztabaidaren mamia jaraunse-tituluari buruzkoa izango da, erabaki behar baita jaraunselea nor den. Akzioa, izaeraz, errebindikatzaila da, baina, adierazi denez, ez dira ondasunak eta eskubideak erreklamatzeko. Horregatik, esaten da akzioa ez dela erreala esanahi hertsian, eskubide errealki erreklamatzeko ez delako; alegia, ez da ondasunaren gaineko jabetza edo beste eskubide erreala bat eskatzen. Ez eta pertsonala ere, ez baita obligazio batetik sortzen, bidegabeki kobratutakoarekin antzik baldin badu ere. Jaraunse titulua kolokan jartzen da akzioaren bidez: ustez benetako jaraunselea denak tarteratzen du itxurazko jaraunsearen kontra. Harek irabazten badu auzia, jaraunse titulua berari egotzita, efektu gisa, jaraunspena eman egin behar dio itxurazko jaraunseleak.

Hortaz, akzioa, izatez, unibertsala da, objektutzat jaraunspena edo ondare osoa duelako. Bestalde, jurisprudentiak akzio errealean artean kokatu du, *erga omnes* egikari daitekeelako (AGE 1997/7/15 [RAJ 5511]).

AGE 1992/11/27 (RAJ 9597): “En una acción de petición de herencia o declaración de heredero, *per se* es una acción de carácter universal cuyo contenido no sólo se integró por el ejercicio de derechos personales sino también de derechos reales, y que, indiscutiblemente, persigue, por su identidad con la auténtica *petitio hereditatis* incorporar o pretender la conjunción de relaciones jurídicas que integran el concepto de la herencia de una persona

(que, por propia definición del art. 659, cuando dice que la herencia comprende todos los bienes o derechos u obligaciones de una persona, que no se extingue con su muerte) por lo que es obvio que el objetivo de dicha acción de petición de herencia, comprenderá justamente todas estas clases de elementos patrimoniales incluidos en su concepto legal, en cuanto a bienes, derechos y obligaciones, en donde, hay que admitir la concurrencia o complejidad tanto de derechos personales, como de derechos reales dentro del patrimonio relicto, todo lo cual conduce a descartar se trate, pues, sin más, de una acción personal, sino de una acción que, por su universalidad y por comprender justamente los bienes, derechos y obligaciones del citado art. 659”.

Jaraunspen-eskubidea eskuratu eta jaraunsle bihurtu denak du **legitimazio aktiboa**, bere titulua edozein motatakoa izanik ere: testamentuzkoa, legezkoa, fiduziarioa, baldintza esekitzailpean dagoena. **Legitimazio pasiboa**, berriz, jaraunspena ordurarte itxurazko titulu unibertsaletz duenak dauka.

Gerta liteke norbait jaraunslea izatea, borondatezko edo legezko tituluz, eta, aldi berean, beste norbait izatea jaraunslea, ezkutuko testamentuz edo ahaiderik hurbilena delako. Beraz, bi jaraunsle egon daitezke: *benetakoa* eta *itxurazkoa*. Kasu horietan, noski, benetako jaraunsleak itxurazkoari eskatu behar dio jaraunspena: lehenik, eman beharreko ondasunak zein diren finkatu beharko da eta, gero, edukitza kitatu (kzeko 451. art. eta hurrengoak) eta, beharrezkoa bada, bidegabeki kobratutakoaren erregimena aplikatu (kzeko 1895. art. eta hurrengoak.). Kontuan hartuko da, noski, itxurazko jaraunslea fede onekoa edo fede gaiztokoa den.

Arazorik sortzen da itxurazko jaraunsleak jaraunspena besterendu badu. Baldin eta itxurazko jaraunslea fede onekoa bada eta titular berri baita, honen interesak babestu behar dira. Legeak, jakina denez, eraentza berezia ezartzen du ondasunen izaera kontuan hartuz:

(1) Ondasun higieziei Hipoteka Legeko 28. eta 34. artikuluek aplikatuko zaizkie.

(2) Higigarriei, berriz, Kode Zibileko 464. artikulua aplikatuko zaie. Ondasunak *a non domino* eskuratzeko aukera aurreikusten dute biek.

Akzio orok bezala (kzeko 1930. art.), jaraunspena eskatzekoak ere badu preskripzio-epaia. Kode Zibileko 192. eta 1016. artikuluek aipatzen dute akzioa preskribatzen dela, baina ez dute zehazten noiz. Beraz, akzioak preskribatzeari buruzko arau orokorretara jo behar da, baina akzioa izaeraz zer den erabaki ostean. Lehenago aipatu denez, hasieran akzioa izaeraz pertsonala zela erabaki eta Kode Zibileko 1964. artikulua aplikatu bazen ere (hamabost urteko preskripzio epea), geroztik eman diren epaiek eta doktrinak ere akzioa errealtzat hartu dute eta Kode Zibileko 1963. artikulua aplikatu: akzioa preskribatuko da hogeita hamar urteren buruan.

AGE 1953/11/12 (RAJ 2918): “Si bien la acción *petitio hereditatis* es prescriptible conforme reconocen los artículos 192 y 1016 del Código Civil, el tiempo de esta prescripción extintiva ha de entenderse es el de treinta años, según doctrina, entre otras, de las Sentencias de 30 de marzo de 1889 Y 18 de mayo de 1932”.

Epea kontatzen hasteko, oinordetza ireki den unea hartuko da erreferentziatatzat; hala ere, itxurazko jaraunselea ez bazen berehala jaraunspen horretaz arduratu, jaraunspena berea egiteko asmoz hartzen duenetik hasiko da kontatzen epea.

AGE 1971/12/23 [RAJ 5401): “El problema fundamental es el de la determinación del momento inicial de la prescripción extintiva, que tantas dudas y dificultades ha suscitado en la doctrina, el cual pretende resolver nuestro Código consagrando como regla general, el de la *actio nata*, en su art. 1969 que parece aceptar el principio de la realización, muy difícil de aplicar cuando se trata de derechos personales pero que se tiene tan sencilla aplicación en los derechos reales, en los que parece que la acción ha nacido cuando el derecho ha sido lesionado o violado. En esta dirección se pronuncia casi unánimemente la doctrina científica, que sostiene que el momento inicial de la prescripción de la acción de petición de herencia, no sea el de la defunción del causante, sino aquel en que el poseedor aparente empieza a poseer los bienes hereditarios *animo suo*, es decir, exteriorizando su intención de hacerlos propios titulándose dueño de los mismos, comportándose como tal y negando a los demás el carácter de heredero que invocan, que es, verdaderamente, el momento en que lesiona los derechos de ellos y hace surgir a la vida del derecho, la acción que los protege y en igual sentido parece también orientarse la jurisprudencia en los supuestos del ejercicio de la acción de familias erciscundas (*herciscundae familiae causa*: jaraunspena banatzeko arazoa) del art. 1965 del C. Civ., en los que, por los demandados se opone la excepción de usucapión o prescripción adquisitiva de unos bienes, y en el supuesto de ser menor de edad, la persona contra la que esgrima la prescripción de la acción de petición de herencia”.

Ez da ahaztu behar jaraunsele-titulua izateak ematen duela jaraunspena eskatzeko akzioa egikaritzeko oinarria eta, ondorioz, hura ukitzen duten beste akzioak eta horien preskripzioa ere kontuan izan behar direla. Esate baterako, duintasun eza eskatzeko akzioa bost urtera preskribatzen da, eta, duingabe horren orde, beste norbait jaraunselea bada, epe hori du erreklamatzeko, bost urte igaro ondoren jadanik duingabearen jaraunse-izaera ezin baitu eztabaidatu (κzeko 762. art.).

Bukatzeko, inventario-onuraren arabera onartu bada, zera izan behar da kontuan: *el que reclame judicialmente una herencia de que otro se halle en posesión por más de un año, si venciere en el juicio, no*

tendrá obligación de hacer inventario para gozar de este beneficio, y sólo responderá de las cargas de la herencia con los bienes que le sean entregados (Kzeko 1021. art.).

IV.-JARAUNSLAREN ESKUBIDEA FROGATZEA

Jaraunsle-eskubidea frogatzeko, honako hauek dira frogabide nagusiak:

(1) **Kausatzaileak bere azken borondatea adierazteko egintza:** testamentua edo oinordeko izateko kontratua. Halaber, gerta liteke norbait jaraunsle izendatzea inguruabarren arabera. Beraz, inguruabar horiek ere frogatu beharko dira; esaterako, alaba zaharrena edo Lapurdin bizi den biloba jaraunsle izendatzea testamentuan izenik adierazi gabe.

(2) Kausatzaileak ez badu bere azken borondatea adierazi, **jaraunsle-deklarazioa** egin behar da, borondatezko jurisdikzioko prozedura bidez (*vid.* 1881eko PZLko 977. art. eta hurrengoak) edo jaraunsleak hildakoaren ondorengoak, aurrekoak edo ezkontidea badira, notarioak egindako **ezaguntasun-agiri** bidez (*vid.* 1881eko PZLko 979. art.).

Jabetza Erregistroari buruzko araudian ere, HLko 14.1. artikulua horixe bera berresten du: *el título de la sucesión hereditaria, a los efectos del Registro, es el testamento, el contrato sucesorio o la declaración judicial de herederos ab intestato o el acta de notoriedad a que se refiere el artículo 979 de la Ley de Enjuiciamiento Civil.* Jabetza Erregistroan, hain zuzen ere, titulu horiek inskribatuko dira:

(1) Jaraunspena oraindik banatu gabe baldin badago: *los dueños de bienes inmuebles o derechos reales por testamento u otro título universal o singular, que no los señale y describa individualmente, podrán obtener su inscripción, presentando dicho título con el documento, en su caso, que pruebe haberles sido aquél transmitido, y justificando con cualquier otro documento fehaciente que se hallan comprendidos en él los bienes que traten de inscribirse* (HLko 16. art.).

(2) Oinordetzan jaraunsle bakarria bada eta senipartedun edo komisariorik ez badago, jaraunsle-titulua nahikoa da kausatzailearen ondasunak eta eskubideak jaraunslearen alde inskribatzeko: *cuando se tratare de heredero único y no exista ningún interesado con derecho a legítima, ni tampoco Comisario o persona autorizada para*

adjudicar la herencia, el título de la sucesión, acompañado de los documentos a que se refiere el artículo 16 de esta Ley, bastará para inscribir directamente a favor del heredero los bienes y derechos de que en el Registro era titular el causante (HLko 14.3. art.).

(3) Aldiz, jaraunspen-erkidegoa sortzen bada, lehenik prebentziozko oharra jartzea eska dezake edozein jaraunselek: *el derecho hereditario, cuando no se haga especial adjudicación a los herederos de bienes concretos, cuotas o partes indivisas de los mismos, sólo podrá ser objeto de anotación preventiva* (HLko 46.1. artikulua).

(4) Ondasunak eskuratzea: *para inscribir bienes y adjudicaciones concretas deberán determinarse en escritura pública o por sentencia firme los bienes, o parte indivisa de los mismos que correspondan o que se adjudiquen a cada titular o heredero, con la sola excepción de lo ordenado en el párrafo siguiente* (HLko 14.2. art.).

V. IRAKURGAIAK

1. Jaraunspena besterentzea

GUTIÉRREZ ALLER, Victorino (1995): “Compraventa de herencia en el Código Civil (apuntes)”, *Cuadernos de Derecho Judicial*, 1995-3, 207-225.

HERNÁNDEZ ANTOLÍN, José Manuel (1998): “La venta de herencia una vez hecha la partición”, *Actualidad Civil*, XLII.

MARTÍNEZ-RADIO, Antonio de la Esperanza (1967): “Apuntes en tema de enajenación de herencia”, *Revista de Derecho Privado*, 383-403

2. Jaraunspen-eskubidea babestea

CASADO IZQUIERDO, Javier (1996): “La acción de petición de herencia”, *Actualidad Civil*, XI.

GULLÓN BALLESTEROS, Antonio (1959): “La acción de petición de herencia”, *Anuario de Derecho Civil*, 199-233.

SANCHO REBULLIDA, Francisco de Asís (1962): “Las acciones de petición de herencia en el Derecho español”, *Revista General de Legislación y Jurisprudencia*, 261-333.

3. Jaraunspen-eskubidea deklaratzera

CONDE MARTÍN DE HIJAS, P. F. (1988): “Actas de notoriedad y declaración de herederos abintestato”, *Actualidad Civil*, 426.

4. Jaraunspen-eskubidea erregistratzea

JAREÑO GONZÁLEZ, Adrián (1995): “Adquisiciones hereditarias y Registro de la Propiedad”, *Cuadernos de Derecho Judicial*, 1995-3, 165-206.